

## IDEIAREN DESKRIBAPENA

Gure ideia arropa erosteko aplikazio bat eta horren web orria egitea da. Aplikazio hau, ez da gaur egungo aplikazioak bezala eta mundu guztiak aukera dauka erabiltzeko.

Aplikazioa horretan, Inditex denda guztiak agertuko dira. Gaur egun, Inditex-eko denda batean, online erosteko, web orrialde desberdinetara jo behar da. Gureak, berriz, aukera ematen du aldi berean denda desberdinetan erosteko. Inditex dendak hurrengoak dira: Zara, Zara Home, Massimo Dutti, Pull & Bear, Bershka, Oysho, Uterqüe, Lefties y Stradivarius.



Guk sortuko dugun web orrialdean, aurrez aurre daukagula imaginatuko bagenu, orrialdearen ezkerrean, denda desberdinen izenak egongo lirateke. Bat ateraz gero, aukera desberdinak aterako lirateke; hala nola, kamisetak, prakak.... Hau da, denda bakoitzaren web orri ofizialean agertzen den bezala.

Horrez gain, garrantzitsua da esatea ideia honetan, online erosteko, merkataritza-gunera bila joateko eta etxera eramateko aukera ematen duela. Etxera bidaltzea nahi izanez gero, beti egin den bezala egingo litzateke. Merkataritza-gunera eskaeren bila fisikoki joan beharrean, bezeroek eskaera guztiak batera biltzeko erraztasuna izango dute. Honekin lotuta, "Amazon Locker"-ren antzekoak izango dira kutzak, merkataritza-guneetako sarreran egongo direnak. Beraz, bezeroek gure **Iheai** web orrialdean erosten badute eta bertara joateko aukera ateratzen badute, erosketak eta ordainketak

amaitu ostean, berari kutxa baten zenbaki bat esleituko diete eta aldi berean, eskaerak hartzeko ordu bat jakinaraziko diete. Orduan, erosketa egitean, denda bakoitzean erositakoa denda horren saltzaileak bezeroari esleitu dieten kutxara eramango du. (edo merkataritza-gunean lan egingo duen norbaitek)

Gure konpetentzia, Inditex dendak ez direnak edo haien artean izango da eta web orrialde hau erabiltzeko, internetara baino ez da behar.